Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

1859

AGINDUA, 2009ko otsailaren 24koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena. Agindu honen bidez erabaki da Pasaiako Antxo-Iparra eremura zabaltzea birgaitze integratuko areentzat oro har finkatuta dagoen finantzaketa kualifikatua.

GERTAKARIAK

1.– Pasaiako Udalak idatzi bat bidali zuen Birgaitze Integratuko Areentzat jarrita dauden diru-laguntzak eskatzeko, Pasaiako udalerriko Antxo-Iparra izeneko eremurako. Idazkiarekin batera, hauek bidali zituen: Hiri Berrikuntzarako Programa Estrategikoa eremuaren mugaketa-planoa dakarrena, deskribapen eta justifikazio memoria, gizarte eta hirigintzako azterlana, ekonomia eta finantza azterlana eta jarduketa-programa.

2.– Espedientean jasotzen diren agirietan, hau da, Pasaiako Udalak aurkeztutako mugaketa planoan, inguruaren begizko ikuskapenean eta udalerriko Arau Subsidirioetan eremu horren jardute-esparrua mugatzen da, eta hori Agindu honekin batera doan planoan zehazten da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua da espediente hau ebazteko organo aginpideduna, azaroaren 15eko Eusko Jaurlaritzaren 373/2005 Dekretuaren 10. artikuluan eta abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ohartemandakoaren arabera, eskaera data kontuan izanda hori baita aplikatzeko araudia.

2.– Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, Saileko sailburuak Birgaitze Integratuko Areentzat finkatuta dauden diru-laguntzak eman ahal izango dizkie -horretarako Agindua emanda- aipatutako Dekretuaren 9.2 artikuluan definitutako eremuei, salbu area horiek kudeatu eta burutzeko Bereoneratzeko Plan Berezia idatzi behar denean.

3.– Kasu honetan bete egiten dira 317/2002 Dekretuaren 9.2 artikuluan finkatutako baldintzak, hau da, degradazio ekonomiko-soziala eta hirigintza-arkitektonikoa. Ondorioz, Area Degradatutzat hartu da Pasaiako udalerriko Antxo-Iparra izeneko eremua, Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak 2009ko otsailaren 23an emandako txostenaren arabera.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

1859

ORDEN de 24 de febrero de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se acuerda extender la financiación cualificada establecida con carácter general para las áreas de rehabilitación integrada, al Área Antxo-Iparra del municipio de Pasaia.

ANTECEDENTES

1.– Mediante escrito del Ayuntamiento de Pasaia se solicita la concesión de las ayudas definidas para las Áreas de Rehabilitación Integrada al Área Antxo-Iparra del municipio de Pasaia, adjuntando Programa Estratégico de Renovación Urbana del área que incluye la delimitación del ámbito, memoria descriptivo-justificativa, estudio socio-urbanístico, estudio económico-financiero y programa de actuación.

2.– De la documentación obrante al expediente, plano de delimitación aportado por el Ayuntamiento de Pasaia, inspección ocular de la zona y de las Normas Subsidiarias del municipio, se desprende la delimitación del ámbito de actuación de dicha Área, que se concreta en el plano adjunto a la presente Orden.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.– El titular del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco es el órgano competente para la resolución del presente expediente, de conformidad con lo previsto en el Decreto del Gobierno Vasco 373/2005, de 15 de noviembre, artículo 10 y disposición adicional tercera del Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, normativa aplicable dada la fecha de la solicitud.

2.– Conforme señala la disposición adicional tercera del Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, el Consejero de este Departamento podrá conceder, mediante Orden dictada al efecto, las ayudas definidas para las Áreas de Rehabilitación Integradas a aquellas áreas definidas en el artículo 9.2 del citado Decreto, cuya gestión y ejecución no precise la redacción de Plan Especial de Rehabilitación.

3.– Se cumplen en el presente supuesto el conjunto de las condiciones de degradación económico-social y urbanístico-arquitectónicas establecidas en el citado artículo 9.2 del Decreto 317/2002, para considerar el Área Antxo-Iparra del municipio de Pasaia, como Área Degradada, de conformidad con el Informe emitido por la Dirección de Suelo y Urbanismo, de fecha 23 de febrero de 2009.

XEDATU DUT:

Baimentzea, ondare eraikiari dagokionez, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako Birgaitze Integratuko Areentzat diru-laguntzak ematea Pasaiako udalerriko Antxo-Iparra izeneko eremuetan burutuko diren babespeko bereoneratze jarduketei.

Agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro sailburuari edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 24a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

DISPONGO:

Autorizar la concesión de las ayudas financieras establecidas en el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, para las Áreas de Rehabilitación Integrada a las actuaciones de rehabilitación protegida que se realicen en el Área Antxo-Iparra del municipio de Pasaia.

Contra la presente Orden cabe interponer recurso de reposición ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la notificación de esta.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de febrero de 2009.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.


ANTXO - IPARRA EREMUA
PASAIA
AREA ANTXO-IPARRA
EREMUAREN MUGA
LIMITE DEL AREA